

Liburua

Izenburua: 'Korri, Xalto eta Brinko asto gainean Guadalupera doaz'

Egilea: Mikel Susperregi 'Xalto'.

Marrazkiak: Mikel Casalenak.

Argitaratzailea: Orratz! Lezoko Kultur Elkartea eta Korri, Xalto eta Brinko pailazoak

Korri,
Xalto ta Brinko
asto gainean
Guadalupera doaz



Mikel Susperregi

Xalto pailazo eta ipuinen idazlea

«Inguruko leku eta pertsonaiak ezagutarazi nahi ditugu»

Bost urte daramatzate Korri, Xalto eta Brinko pailazoek Lezo eta inguruko haurren irribarreak eta algarak sortzen. Iaztik hona, gainera, euren abentura eta pasadizoak *Ixerka!* ipuin bilduman daude jasoak. Hona hemen saio horretako 7. alea. Oraindik gehiago jakin nahi al duzu euren buruz? Ikus www.euskalnet.net/korrixalto webgunea!

Zer gertatzen da Korri, Xalto eta Brinkoren abentura berri honetan?

Lezotik Guadalupera asto gainean txango bat egitea erabaki dute, Jaizkibel menditik barrena. Astorik ez dute, ordea, eta Lopene baserriko baserritarri eskatu diote. Horrek baietz erantzun die, utziko diela astoa; baina, ordainean, baserrian lan batzuk egin beharko dituzte. Beraz, pailazoak belar metak egiten, artoa aletzen... ikusiko ditugu. Azkenean, astoa lortu, eta Guadalupera abiatzen dira. Bidean hamaika abentura izango dute!

Guk ere egin al dezakegu txangoa?

Bai, ipuina gida bezala erabil daiteke, bidean agertzen diren pertsonaiak, lekuak eta baserriak errealak baitira.

Pailazoen liburu guztietan dago nola erabili azaltzen duen gida bat. Azken liburu honetan, bertsoak daude bukaeran, haurrek txangoan zer abestu izan dezaten.

